

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1235

EBAZPENA, 2018ko otsailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2018ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (ebazpen honen eranskinean dago jasota), zenbait diru-baliabide esleitzen ditu Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakar osoko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2018ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakia (ebazpen honen eranskinean dago jasota), zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakar osoko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Jakinaraztea argitara ematen den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabaki horrek ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 27a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

ERANSKINA

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAREN 1994KO APIRILAREN 13KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK 2018KO EKITALDIAN FINANTZATZEKO. AGINDU HORREK OINARRI ARAUTZAILEAK EZARTZEN DITU, LANGABEZIA-PRESTAZIOA ORDAINKETA BAKARREKO MODALITATEAN JASOTZEN DUTENEI GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTEN ORDAINKETAN OINARRITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, 1044/1985 ERREGE DEKRETUAREN 4.2. ARTIKULUAN EZARRITAKOARI JARRAIKIZ

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak oinarri arautzaileak ezarri zituen Gizarte Segurantzako kuoten diru-laguntzak emateko, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Bada, agindu horren helburua da kotizaziopeko langabezia-prestazioa jasotzen dutenen autoenplegua erraztera bideratutako diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza horien bidez, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzeko eskubidea baliatu dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egiten zaie, kuota horien egungo balioaren arabera, betiere ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak (geroagoko arauen bidez sartutako aldaketak ere kontutan hartuta) ahalmena ematen dio erakunde kudeatzaileari langabezia-prestazioaren zenbatekoa ordainketa bakar batean ordaintzeko, egun duen balioaren arabera, prestazioen onuradun hauei: kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide-langile edo lan-bazkide gisa –modu egonkorrean– sartu nahi dutenei, eta, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanik, langile autonomo bihurtu nahi dutenei.

Egun, Lan-merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua eta Ekintzaileari laguntzeko eta enpleguaren hazkundera eta sorrera estimulatzeko neurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretua onartu ondoren, beste bi talde sartu dira langabezia-prestazioaren % 100eko kapitalizazioaren onuradunen artean: bata, langile autonomo gisa jarduten duten gazteak (30 urtera bitarteko gizonetzkoak eta 35 urtera bitarteko emakumezkoak), eta, bestea, hogeita hamar urtez azpiko gazteak, diru-zenbatekoa erabiliko dutenak ekarpen bat egiteko merkataritza-erakunde baten kapital sozialean, baldin eta merkataritza erakunde hori sortu berria bada edo ekarpena egin aurreko hamabi hilaren barruan sortua bada eta erakunde horretan egiten duten jarduera profesionala mugagabea bada, Gizarte Segurantzaren duten erregimena gorabehera.

Eskubide hori baliatzen duten langileek jasoko duten diru-laguntza hauxe izango da: langile autonomo gisa Gizarte Segurantzaren dagokien erregimenean duten kuotaren % 50, gutxieneko kotizazio-mailaren arabera kalkulatuta; edo, langileek langabezia-prestazioa jaso duten bitartean Gizarte Segurantzaren, dagokion erregimenaren kotizazioetan, egin duten ekarpenaren % 100, baldin eta langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jaso ez bada.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak. Geroztik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumen da enpleguko, enplegu-prestakuntzako eta autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programak kudeatzea.

Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago laguntzak erregulatzeko araudi bat, kotizaziopeko langabezia-prestazioaren % 100 ordainketa bakarrean jaso dutenei autoenpleguko ekimenak martxan jartzen lagunduko diona. Horregatik, horrelako araudi bat landu eta indarrean jarri bitartean, diru-laguntzen programa hau gauzatu behar da, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzeko.

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak indarraldi muga-gabea du. Bestalde, laguntza hauek emateko prozeduran, ez da lehiaketaren teknika erabiliko. Esleitutako aurrekontu-kreditua edo haren eguneratsetik sortzen dena izango da laguntzak emateko muga, berariaz hala ezarrita baitago aginduaren lehenengo xedapen iragankorrean.

Hori dela eta, diru-laguntzak emateko prozeduran errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoarekin bat, jakinarazi behar da guztira zenbat diru bideratuko den aipatutako agindu horretan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko kredituetarako eta zein izan daitekeen zenbateko hori eguneratsetik sor litekeen zenbatekoa.

Bestalde, diru-laguntza hauek kudeatzen dituen administrazioa aldatu dela kontuan hartuta, publikotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak errespetatzeko, komeni da laguntzen onuradun izan daitezkeenei informazioa ematea diru-laguntzen prozedurarekin eta aplikatu beharreko erregimen juridikoarekin zerikusia duten alderdi jakin batzuei buruz.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko otsailaren 27ko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– 500.000 euroko diru-baliabideak esleitzea, 3211-Enplegua programaren kargura, 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. Izan ere, aipatu aginduak arautu zuen Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak ematea ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako eskubidea baliatzen dutenei, betiere Errege Dekretu horren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori eguneratsetik ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat. Eguneratzerik izanez gero, argitara eman behar da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

Bigarrena.– Diru-laguntza hauen kudeaketari buruzko honako alderdi hauen gaineko informazioa ematea (alderdi horietan eragina izango baitu Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen antolakuntzari eta erregimen juridikoari buruzko araudiak zuzenean aplikatzeak):

– Ebazpen honetan aipatzen diren diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Deialdi honen eranskinean ageri da eredu hori, eta toki hauetan ere eskuratu ahal izango da: <http://www.lanbide.euskadi.eus> webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz), eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurralde-bulegoetan.

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2018ko martxoaren 7a, asteazkena

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatzen Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta erakunde autonomo horren zuzendari nagusiak ebatziko ditu.

– Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte.

Aurrekontu-zuzkidura agortu eta gero, egoera hori EHAAn argitaratuko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, laguntza berri gehiago ematea geldiarazteko.

– Ebazteko, gehienez sei hilabeteko epea izango da diru-laguntza eskaera aurkezten den egunaz geroztik, eta, epe hori igarotakoan, ebazpenik eman ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

– Diru-laguntzen programa honi honako arau hauetan bildutako diru-laguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, azken horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

Hirugarrena.– Zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau argitara eman dezala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.



ESKABIDEAK NON AURKEZTU

• **LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ZERBITZU ZENTRALA** (Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) edo ondorengo leku hauetan:

- | | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|
| • ARABAKO LURRALDE BULEGOA
Antillak pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ | • BIZKAIKO LURRALDE BULEGOA
Ertzilla kalea 4
BILBAO | • GIPUZKOAKO LURRALDE BULEGOA
San Martzial 12
DONOSTIA |
|--------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|

- | | |
|----------------------------------|-------------------------------------------------------|
| • TOKIKO ENPLEGU BULEGOAK | • ZUZENEAN - HERRITAREN ZAKO ZERBITZU BULEGOAK |
|----------------------------------|-------------------------------------------------------|

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu formulario honetan ematen dituzun datu pertsonalak erregistratuta geratuko direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren "ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK" izeneko fitxategian. Fitxategi horren helburuak hauek dira: Lanbideren eskumenekoak diren enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboekin lotutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea; beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea Lanbideren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko; iruzurraren jazarpena eta estatistika-helburuak; Datuak Babesteko Euskal Agentziaren erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, eta datuen segurtasun-neurri egokiak izatea.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki iritzitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Halaber, jakinarazten dizugu datuok legezko kasuetan bakarrik jakinaraziko direla, eta fitxategi honi dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, foru- aldundiei eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari jakinaraziko zaizkio.

Entitate eskatzaileak honako hau bermatzen du dokumentu hau sinatzean: dokumentuko datu pertsonalen titularrak baduela Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua ereduaren berri, eta berariazko baimena eman duela datuok –erakunde eskatzailearen titulartasuneko fitxategietan jasotakoak– orain tratatu ahal izateko.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuetara iristeko eskubidea balia dezakete interesdunek, baita haiek ezeztatze, zuzentze eta tratatzearen kontra egiteko ere. DBLOk berariaz onartzen ditu eskubide horiek, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuekin jarri behar duzu harremanetan (Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba).



ESKAERA, Langabeziako Prestazioa jasotzen dutenei Gizarte Segurantzaren kuotetarako diru-laguntzak ematekoa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduaren Ordainketa Bakar Osoko modalitatean.

I – ESKATZAILEAREN DATUAK

NAN	Izena	1. abizena	2. abizena		
Ohiko helbidea	Zk.	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea
Herria	Posta-kodea	Probintzia			
1 – Telefonoa	2 – Telefonoa	Posta elektronikoa			

II – JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA (aurreko puntuan jarritako helbidearekin bat ez datorrenean bete beharrekoa)

Ohiko helbidea	Zk.	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea
Herria	Posta-kodea	Probintzia			

ADIERAZTEN DU: Langabeziako Kotizaziopeko Prestazioa —Ordainketa Bakar Osokoaren modalitatean— onartu eta ordaindu zaiola.

ESKATZEN DU: Langabeziako Prestazioa jasotzen dutenentzako Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko diru-laguntza ematea, Ordainketa Bakar Osoko modalitatean, **eskabide honekin batera atxikitzen diren Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentuei dagokien aldiagatik.**

1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza ordaintzeari dagokionez, kotizazio-buletinak aurkezteko **epea 6 hilabetekoa izango da**, diru-laguntza eman den hilabetetik kontatzen hasita.

Horretarako, 1994ko apirilaren 13ko Ministerio Aginduari jarraikiz, eskaera honen atzeko aldean zerrendatuta agertzen den dokumentazioa **AURKEZTU DU** eskaerarekin batera eta, bereziki, honako hauek:

(dagokiona X batez seinalatu)

- A) Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuz gero
- Eskatutako aldi guztiko nominak
 - Eskatutako aldi guztiko kotizazioen likidazio-ordainagiriak (KLO) eta langileen izen-zerrenda (LIZ).
- B) Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuz gero
- Autonomoen Matricea edo eskatutako aldi osoari dagozkion hilabeteetan ordaindu izana egiaztatzen duen ordainagiria, Finantza Erakundearena

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Nik,..... jaunak/andreak, diru-laguntzaren eskatzailea naizenez,

ADIERAZTEN DUT:

(dagokiona X batez seinalatu)

Lehenengoa.

Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren baitan.

Bigarrena.

Eskatzaileak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

Hirugarrena.

Ez dut sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko Legea (4/2005) dela bide.

Laugarrena.

Eskabide honetan jarritako datu guztiak egiazkoak dira.

Bosgarrena.

Ez nago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

NORTASUN DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA (dagokiona X batez seinalatu)

BAI: Lanbide E.E.Zari baimena ematen diot nire nortasun datuak elektronikoki egiazta ditzan

EZ: Lanbide E.E.Zari ez diot baimenik ematen nire nortasun datuak elektronikoki egiazta ditzan
(OHARRA: baimenik eman ezean, NANaren fotokopia aurkeztu beharra dago.)

.....n,.....(e)ko.....aren..... (a).

Eskatzailearen sinadura



ESKAERA IZAPIDETZEAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN EGINBIDEA

(LANBIDEK betetzeko)

DOKUMENTUA	HILABETEA	URTEA	JASOTAKOA	ESKATUTAKOA
Hirugarren Interesduna - Datuen Alta				
Erantzukizunpeko adierazpena				
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kapitalizazioa emateko ebazpena				
Desgaitasun-ziurtagiria, hala badagokio				
NANaren fotokopia (datu pertsonalen kontsulta elektronikoa egiteko baimenik eman ez badu soilik)				
Kooperatibisten kasuan, proba gainditu izana egiaztatzen duen agiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				
Nominak eta KLO eta LIZ edo autonomo ordainagiria				

Egiaztatze Eginbide hau eman da, formulario honetan bildutako datuen eta dokumentu horietan agertzen diren datuen edukiak zehatz-mehatz bat datozela adierazteko.

Dokumentuak aurkezteko eskatzen bazaio, urriaren 1eko 39/15 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, 10 eguneko epea izango du aurkezteko; epea igaro eta dokumenturik aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere alde zurretik Ebazpena emanda. Dena den, beste eskaera bat aurkezteko aukera izango du, eskubidea preskribatu ez bada edo, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, dagokion Ebazpena eman ahal izango da.

Eskaera aurkeztu den eguna, hartzailearen sinadura eta Unitatearen zigilua:

.....(e)ko.....aren.....(a)